



AHM - ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

Lau Haizeta, 21-3. ezk ALTZA 20017 DONOSTIA
Tel 943-35 76 57 Fax 943-35 30 80
E-mail: altzakohm@eusnet.org
Topalekua: Casares Kultur Etxea (Darieta Pasealekua ALTZA)
asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara

- [Nor gara?](#)
- [Altza](#)
- [Zer egiten dugu?](#)
- [Zer egin dugu?](#)
- [Irakurlearentzat oharra](#)

Nor gara?

AHM Altzako Historia Mintegia Altzako iragana eta egungo errealitatearen ikerketa eta ezaguera bultzatu nahi duen elkarte da.

Era berean, altzatarak bere herriarekin identifikatzea bilatzen dugu, Altzaren etorkizunaren eraikuntza bere gain har dezan.

Altzaren nortasuna ezagutu eta garatu nahi duen beste elkarte eta erakundeekin lan egin nahi dugu.

Ez dugu lokalistak izan nahi eta bakarrik gure zulotxora begira lan egin. Gure lana munduan dagoen korrante zabal baten barruan kokatzen dugu. Historia ofizialetik kanpo geratu diren herri, talde eta pertsonen kultura ikertu eta bultzatu nahi duten elkarteekin batera aritu nahi dugu eta, alde honetatik ikusita, ikuspegi unibertsalak gidatzen gaitu.



Altza

Altza Gipuzkoako iparrekialdean dago. Pasaiaiko portua eta Urumea ibaiaren artean kokaturik, Pasaia, Errenteria eta Astigarraga herriekin muga egiten duela. Kota nagusienak: San Markos (280 m.), Mendiola (208 m.), Ametzagaina (123 m.), Altzagaina (104 m.). Badago Altzako enklabe bat Urdaburu mendiaren hegoaldean Altzabasoaren izenekoan.

Altza izena XII. mendean agertzen da lehen aldiz eta, XIX. mendera arte, Donostiari loturik egon da beti ere autogobernu maila handi bat izan duelarik (une gogoragarria 1390. urtea dugu, Altzako biztanleek batzarrean bildurik San Martzial parrokia eraikitzea erabakitzen dutenean). XVIII eta XIX. mendeetan zehar Donostia behin eta berriro ahalegindu zen Altza erabatez berenganatzen, alderantzizkoa lortuz: Altza independentea izango da lehen aldiz 1821-23 urte tartean eta 1879. urtetik 1940. urtera. Frankismoari esker Donostiak berreskuratu behar izan zuen Altza, ordura arte egin ziren erreferendum guztiak galdu baitzituen.

Gaur egun Donostiako auzo bat da, bere lurraldea ondo definiturik ez daukana. Anexioaren urtean Altzako auzoak hauek ziren: Herrera, Antxo, Sarrueta, Miracruz eta Alzagaina, izan ere, egungo Bidebieta, Intxaurre, Martutene (zati bat), Herrera, Larratxo, Buenavista, Molinao eta Alzagaina auzoak. Eguneroko erabileran Altza izena Alzagainako eremura mugatzen da, historiari bizkarra emanez.

Altzako biztanlegoa, 1986. urtean, 44.384 lagunekoa zen. Azpimarratzekoa da datu honek XX. mendean izan duen bilakaera (1900. urtean, 2.103 biztanle; 1940. urtean 7.224) gure herriaren ezaugarri nagusietako bat bilakatuko baita: azken lau hamarkadetan izan duen hazkunde demografiko eta urbano itzelak. Industrializazioa, Donostiako auzo periferikoa bihurtua izana eta inmigrazioa (batez ere Extremadura, Gaztela et Galiziatik etorritakoa) izan dira hazkunde honen arrazoi nagusiak.

Biztanlegoaren erdia Donostiatik kanpo jaioa da, gaztetasuna izanik ezaugarri nabarmenetako bat. Euskararen ezagutza oso baxua da, %70,1 fitxik ere ez dakite, baina etorkizunera begira itzaropentsuak izan gaitezke ia haur guztiak hezkuntza eredu elebidunetan matrikulaturik baitaude. Langile gehinek zerbitzuen alorrean jarduten dute (%63), kualifikazio maila, orohar, baxua delarik. Langabezia %20,5koa da.

Ekipamenduen aldetik (osasuna, hezkuntza, sozio-kulturalak, kirolak, garraioa...) azken bi hamarkadetan gaintu egin dira, neurri handi batez, hazkunde garaian sortu ziren hutsune izugarriak. Elkarte sozio-politiko-kirol- kulturalak ugariak dira eta gizartearen maila guztietara heltzen dira. Etorkizunari begira Altzako herriak besteak beste, dituen erronka handienak hauek dira: Lau Haizeta parkearen garapena; falta diren kirol ekipamenduak eraikitzea; eta etxebizitzaren eta biziguneen kalitatea hobetzeko ekimenak.



Zer egiten dugu?

Fototeka: Argazkien bilaketa eta antolaketa.

Tokiko Bilduma: Artikuluak, liburuak, festa-programak, txartelak, bideoak, planoak, etab. katalogatzen ditugu eta Kultur Etxearen zerbitzu bat bezala eskeintzen dugu.

Ahozko Historia: Grabaketen bitartez adineko pertsonen testigantza jaso.

Argitalpenak: “Altza, Hautsa Kenduz”, urtean behin atera nahi dugun liburua, gai ezberdinetako artikuluak biltzen dituena; orain arte hiru atera ditugu. Eta “Estiba” buletina (lau orrialde), hiru hilabetean behin argitaratzen duguna. Ibilaldiak eta txangoak, hilabetean behin gutxi gora-behera.

Hemeroteka: Prentsa idatzian argitaratutakoa bildu. Agiritegi Historikoak arakatu eta Altzari buruzko agiriak bilatu.

“Altzanet”: Altza sare informatikoekin konektatzea. Aurten Altzako historia ikertzeko 125.000 ptako. Beka bat eman dugu. Casares Kultur Etxearen inguruan antolatzen diren zenbait ekintzetan parte hartzen dugu (ospakizunak, Euskal Astea...).



Zer egin dugu?

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA 1986. urteko apirilean sortu zen, Casares Kultur Etxearekin batera eta honen tailer bat bezala, Mintegiaren partaideak lanerako proposamenak planteatu eta burutze lanetaz arduratzen ziren bitartean Kultur Etxeak baliabide tekniko- ekonomikoak eta aholkularitza ipintzen zituela.

1986. urteko urrian “Altzako Kultur Astea” antolatu zuen: lau hitzaldi, diapositiba emanaldi bat, musika saio bat, erakusketa, eta egun osoko herri jai bat antolatuz.

1987. urteko abenduan, “Altzako atzeranzko Argazkien Erakusketa” antolatu zuen, bide batez Altzako Fototeka zabalduz.

1988. urteko martxoan Altza herria izan zeneko ikerketa eginez Altzari buruzko artikulu, argazki,

bibliografia, etabar biltzen dituen “Altza, Hautsa kenduz” liburua aurkeztu zuen.

1989.ean oraindik zutik diren baserriei buruzko lanari ekiten diote “Altzako Ibilbide Historikoa” plazaratuz. Ibilbidearen ale bat “Altza, Hautsa Kenduz” liburuarekin batera banatzen da.

1990. urtean, San Martzial parrokiaren 5. mendeurrena zelarik eta Donostiak Altza anexionatu zuela 50. urteurrena zela eta, “Altza: Historiaz jabetuz (1390-1940)” izenburupeko Ihardunaldiak antolatzen zituzten. Bertan antolatu ziren bi mahai inguru, bi hitzaldi, diapositiba emanaldi bat, iblaldi bat, musika saio bat, eta zenbait lehiaketa. Liburuaren aurkezpenean hitzaldi bat antolatu zen.

Urte berean “Altzako Toponimia Mapa” argitara ematen da. Aranzadiren lanean oinarrituz bertan gaurko toponimia osoa jasotzen da, halaber, kale planoak eta toponimoen zerrenda eta argitasunak.

1992. urtean Casares Kultur-Etxeko liburutegian “Tokiko Bilduma” zabaltzen da. Tokiko Bilduma aurreko urte guztietan Altzako Historia Mintegiak bildutako materialak katalogatzeko egiten den lehengo saioa da, dagoen materialen artean orden pixka bat jarritz eta era berean edozeinentzat kontsultagarriak izan daitezzen. Bildumaren zabaltzearekin batera “Altzako Tokiko Bildumaren Katalogoa” argitaratzen du.

Ordurarte Casares Kultur Etxearen barruko lan talde bat bezala aritu bazen, 1993. urteko abenduan elkarte autonomo bezala antolatzea erabakitzen du eta, beraz, Kultur Etxetik bereiztea. Honen ondorioz, 1994ko urtarrilaren 17an Eusko Jaurlaritzaren Bazkunen Erroldan erregistratuta geratzen da A.H.M. ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA izenarekin. Izaera berriarekin lehengo lanari eusten dio, Kultur Etxearekin elkar-lana eta harreman estuak mantenduz, baina modu autonomo batez.

Materialen bilketarekin jarraituz lehenengo emaitza 1994. urteko ekainean izango da “Herrerako Historia Agazkitan” erakusketa aurkeztu zenean. Erakusketarekin batera Herrerako Historiari buruzko hitzaldi bat burutu zen.

1994. urteko abenduan, “Altza, Hautsa Kenduz- II” liburua aurkezten du, bertan Altzarekin lotutako hamaika lan jasotzen direlarik. Aurkezpenarekin batera musika saio bat eskeintzen da.

1995. urtean isilpeko lana burutzen da, eta ikusgarria ez bada ere bai oparoa: katalogo berria landu; argitalpenak prestatu; ideiak berriak ondu (beka; Ikertzailearen Gida...); hemeroteka osatzen hasi; eskurtsioak Altza inguruan; Agiritegiak arakatu eta hustu; Mintegiaren antolaketa hobetu eta bazkide berriak bildu;... Lan hauen emaitzak ondoko hilabeteotan ikusiko dira.

1996ko urtarrilean “Altza, Hautsa Kenduz- III” liburua aurkeztu zen, hamazazpi lan berri eskeiniz. Aurkezpena San Markos Fuertearen historiari buruzko hitzaldi batekin osatzen da.

“Hautsa Kenduz” berriarekin batera argitalpen berri bat aurkezten du: Estibaus. Estibaus Mintegiaren Buletina izanen da, hiruhilabetean behin aterako dena eta bertan Altzako kultura, gizarte gaiak eta altzatarren partaidetza bultzatuko da.

Urtarrilean ere 125.000 pezetako Beka bat eskeintzen du. Aktibitate hau aurrenekoa eta bakarra da Altzaren historian eta bide berri bat zabaldu nahi du Altzari buruzko ikerketetan. Sei proiektu aurkeztuak izan dira.

Urtean zehar ibilaldiak antolatzen ditu Altza ezautarazteko. Besteak beste, Altza eta inguruko herrien artean dauden mugarriak kokatu, fitxatu eta argazkitan biltzen ari da.

1996ko martxoaren 1ean, Casares Kultur Etxearen enkarguz egindako Katalogo berria aurkezten du, paperean ezezik euskarri informatikoan ere. Katalogo berri honek, materiale berriak gehituz eta hobeto sailkatuz, Casares Kultur Etxeko Tokiko Bilduma indartzea suposatu du. Katalogoaren aurkezpenarekin batera Tokiko Bildumei buruzko hitzaldi bat eskeintzen da.

Aipaturiko aktibitateetatik aparte AHM-ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAK elkar lanean jarduntzen du Altzako beste elkarteekin batera aktibitate ezberdinak burutuz, besteak beste Altzako Euskal Jaiak eta Casares Kultur Etxearen hamargarren urtemugaren ospakizunetan.

Gaur egun, Altzako Historia Mintegia hogeita hemezortzi bazkidez osaturik dago, eta bere lanak burutzeko beste lagun askoren elkarkidetza badauka.



Irakurlearentzat oharra

Beste lekuetako antzeko taldeekin harremanetan jarri nahi dugu.

Zerbait baldin baduzu gugandik jasotzeko (argitalpenak...) edo eskeintzeko (materialak, esperientziak...) ez zalantzarik izan gurekin harremanetan jartzeko.

Bazkidea izan nahi baduzu, bazkide orria bidaliko dizugu bete dezazun. Urtean 1.000 pela jartzen dugu bazkideok.
AHM ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA



Diseinua: Eusnet